


Rote Zora*

“Erresistentzia posible da!”. “Rote Zora” emakumeen talde armatua eta bere autopertzepzioa



Rote Zora, *Protest ist, wenn ich sage: das und das paßt mir nicht. Widerstand ist, wenn ich dafür Sorge, daß das, was mir nicht paßt, nicht länger geschieht, s/f. Iturria: Archiv Schwarzer-Stern.*

* Rote Zora (Zora Gorria) 70eko hamarkadan Alemania Federalean sortutako emakumeen talde armatua izan zen. Zelula Iraultzaileetatik (Revolutionäre Zellen) munduratu (hasiera batean, die Frauen der Revolutionären Zellen izena eraman zuten. Hots, Zelula Iraultzaileen Emakumeak), bere ibilbidea, azken organizazio honen antzera, kultura politiko autonomoan oinarritzen zen.

Erakunde armatu berriak, emakume langileen emantzipazioa helburu, marxismoan eta borroka antiinperialistan errotu zuen bere ibilbide armatua. 1975eko martxoaren 4an, Rote Zoraren kideek bere lehenengo ekintza armatua antolatu zuten Auzitegi Gorenaren aurka. Bi urte geroago, Koloniako medikuen Ganbera Federalaren kontrako erasoak planifikatu zuten taldeak. 80ko hamarkadan, eta emakume langile asiarren alde borrokatuz, Alemaniako ehungintza korporazio handia (Adler Enpresa) erasotu zuten Rote Zoraren militanteek. Zure aurrean duzun testua, "Rote Zora: Hiri-gerrilla feminista piztiaren bihotzean (1974-1995)" (Katakarak, 2023) liburutik dago hartuta. Hemen euskaraz erreproduzitzen den elkarrizketa originala, 1984an argitaratu zen lehenbiziko aldiz alemanez Emma aldizkariaren ekaineko alean "Widerstand ist möglich" izenburupean.

Aitortu 4.0 Nazioartekoa (CC BY 4.0)| ISBN: 978-84-16946-85-3

Emma aldizkaria, 1984ko ekaina

— **Hemendik has gaitezen: nor zarete?**

— **1. zora:** Maila pertsonalean, 20 eta 51 urte bitarteko emakumeak gara. Gutako batzuek gure lan-indarra saltzen dugu, beste batzuek hartu egiten dugu bizitzeko behar duguna, eta beste batzuk oraindik ez gara erori gizarte-segurantzaren babesean. Batzuk lesbianak gara, beste batzuek mutilak maite ditugu. Supermerkatu higuigarri horietan egiten ditugu erosketak, etxe itsusietan bizi gara; gogotsu joaten gara osteratxo bat egitera, edo zinemara, antzerkira, diskotekara, eta jaiak egiten ditugu. Ezer ez egitea ere maite dugu. Noski, egin nahi dugun gauza askok bat-batekotasunagatik egiten dute aurrera, kontraesan horrekin bizi gara. Baina ekintza bat ondo ateratzen zaigunean, biziki pozten gara.

— **Zergatik duzue izen hori, Rote Zora (RZ)?**

— **2. zora:** Rote Zora eta bere taldea gazteentzako liburu klasiko baten izenburua da. Protagonista Zora izeneko neska bat da, zeinak aberatsei lapurtu eta behartsuei ematen baitie. Gaur egunera arte, legez kanpoko ekintzak egiten dituzten taldeak sortzea gizonen pribilegioa izan da, itxura batean. Baina neska eta emakumeok ere, itotzen gaituzten milaka oztopo pribatu eta politikoak direla eta, «bidelapur» bihurtu behar dugu masiboki, askatasunaren eta giza duintasunaren aldeko borrokalari. Borroka gogorraren ondoren eskubide batzuk lortu izan ditugun arren, eta eskubide horien alde egunero borrokatu arren, eta egunero berriz lortu arren, legeak, zuzenbidea eta ordena beti gure aurka daude. Praktikan, legearekiko fideltasuna eta borroka feminista erradikala bateraezinak dira.

— **Zuen siglak bat datoz Zelula Iraultzaileak (Revolutionäre Zellen, RZ) erakundearen siglekin. Kasualitatea da?**

— **1. zora:** Ez, noski. Zelula Iraultzaileen oinarri berak ditugu Rote Zorakook, hau da, ikuskera bera dugu egitura ilegalak egituratzeko, estatuaren aparatuak kontrolatu ezingo duen sare bat osatzeko. Era horretan soilik lor dezakegu ekintza zuzen eta subertsiboak egitea, herri-mugimenduen borroka legalaren osagai gisa. «Guk, emakumeok, erasoei aurka egiten diegu»; horixe izan zen emakumeon leloa 1968ko maiatzean. Egun ere, emakumeon aurkako indarkeria indibidualaren kasuan, inork ez du lelo hori zalantzan jartzen; hau da, inork ez du dudan jartzen bidezkoa dela geure burua defendatzea. Baina botereari –alegia, uneoro indarkeria eragiten duen sistemari– guk, emakumeok, erantzun kolektiboa ematea... badirudi hori tabua dela.

— **Zer motatako ekintzak gauzatu dituzue eta zergatik?**

— **2. zora:** Zelula Iraultzaileetako emakumeon lehenengo ekintzarekin abortuaren legea baliogabetzeko eskatu nahi izan genuen; helburu horrekin, 1974an bonba bat jarri genuen Epaitegi Konstituzionalaren aurka. 1977ko Walpurgis edo sorginen gauean, berriz, bonba bat leherrarazi genuen Medikuen Elkargoan;



erreforma txiki bat egin nahi zitzaion abortuaren legeari, eta Medikuen Elkargoa aldaketa hori oztopatzen ahalegindu zen; beraz, guk gure esku genituen baliabide guztiak erabili genituen. Hurrena Duogynon izeneko botikaren inguruko epaiketaren aurkako ekintza etorri zen, baita pornografia saltzen zuten denden aurkako ekintza ugari ere. Egia esan, egunero erre beharko litzateke horietako denda bat; izan ere, gure ustez, ezinbestekoa da emakumeok objektu sexual eta haur-ekoizle gisa jasaten dugun esplotazioa inguru pribatutik ateratzea eta gure amorrua sutsuki erakustea.

— **1. zora:** Baina ez gara emakumeon aurkako errepresio zuzen eta agerikoenean gelditzen. Gizarte honetan, indarkeria-baldintza guztiek erasaten digute emakumeoi, dela hiriaren edo ingurumenaren suntsipena, direla kapitalismoaren arabera antolatutako ekoizpen-moldeak, hau da, gizonek ere jasan behar dituzten baldintzak. Emakumeok emakume-kontuetan adituak eta gizonak, berriz, kontu politiko orokorren erantzule? Ez dugu nahi horrelako lan-banaketarik, ezta ezker politikoan ere ez. Gure bizitzak aldatzearen erantzukizuna ez diogu beste inori utzi behar. Horregatik eraso genituen Kaussen jaunaren abokatuen autoak, etxe batzuk basatiki hutsarazi zituztelako. Horregatik faltsutu genituen Ruhr inguruko garraio publikoetako txartelak Zelula Iraultzaileekin batera, arduradunek haien prezioak igo ondoren. Doako txartelak banatu genituen, eta horrela, doako tarifa ezartzea bultzatu genuen.

— **2. zora:** Gure azken ekintzak Siemens eta Nixdorf ordenagailu-enpresen aurkakoak izan ziren. Herritarrak menperatzeko teknologia berriak garatzen dihardute, eta, armamentuz eta bestelako neurri gero eta sofistikatuagoen bidez, kontrainsurgentzia eguneratzen ari dira. Horretaz gain, salatu nahi izan dugu enpresa horiek industria-lanaren berregituraketaren abangoardia direla, eta hori batez ere emakumeon lepotik gertatzen dela. Hemen, are gehiago esplotatu nahi gaituzte emakumeok lanaldi zatituetan eta etxeko lanetan, bakartuak eta asegururik gabe... horretarako balio dute enpresa horien teknologia berriek. Hirugarren Munduan, berriz, emakumeak tresna elektriko horiek ekoizten ahitzen dituzte. Hogeita bost urterekin, xehatuak daude erabat.

— **Zer garrantzi du zuentzat Hirugarren Munduarekiko harremanak eta hango emakumeen esplotazioak?**

— **1. zora:** Gai hori gure ekintza guztietan azaldu dugu. Hala egin genuen emakume-trafikatzaileen aurkako ekintzetan, baita joan den urtean ere, Bonn hiriko Filipinetako enbaxadaren aurkakoan. Guk ez dugu Hirugarren Munduko emakumeentzat borrokatzen, hau da, ez dugu haien izenean borrokatzen, haiekin batera baizik; adibidez, emakumea merkantzia gisa ulertu eta esplotatzearen aurkako borrokan. Izan ere, esklabotza moderno horrek bere baliokidea du hemengo ezkontza-harremanetan, ezkontza-jabetzako egituretan. Zapalkuntza-moldea desberdina izanda ere, biek erro bera dute. Elkarren kontra aritu gaitezen ahalegintzen dira, baina hori ez dugu onartuko. Era berean, gizon eta emakumeon arteko zatiketa horrek baliokidea du baita ere nazioen arteko harremanetan, Lehen

Munduko eta Hirugarren Munduko herrialdeen arteko bereizketan. Guk geuk ere onurak erdiesten ditugu lanaren nazioarteko banaketatik. Horregatik, sistemarekin dugun lotura eten nahi dugu, eta beste herrialde batzuetako emakumeekin amankomunean duguna topatu.

— **Zuen praktika nola ikusten duzuen azaldu duzue. Baina ez duzue argitzen zergatik antolatzen zareten Zelula Iraultzaileen barruan.**


— **2. zora:** Ildo politiko hau Zelula Iraultzaileek garatu zuten. Guk egokia zela iritzi genion, eta egokia dela irizten diogu oraindik; hori da funtsezko arrazoia. Garatuz joan garen heinean, eduki politiko propioak zehaztu ditugu, eta horregatik antolatu gara era autonomoan, betiere Zelulen esperientziaz baliatuz. Horrez gain, talde erradikalen arteko elkarlanak erresistentziari laguntzen dio, oro har. Elkarlana eraginkorra izan da, adibidez, Reagan Alemanian bisitan izan zenean edo Bake Mugimenduaren inguruko eztabaida-artikulua idaztean. Bestalde, eztabaida nekagarriak ere badira. Izan ere, sistemarekin errotik hautsi eta, ondorioz, jokabide jakin bat hartu duten gizonei asko kostatzen zaie ulertzea borroka antisexista zer den eta zer garrantzitsua den ikuspegi sozial eta iraultzaile batetik. Emakumeon artean ere ez dugu argi muga non dagoen; hots, elkarlanak noiz indartzen gaituen, eta noiz moteldu. Baina gure nortasun feministak Zelula Iraultzaileetako emakume batzuekin elkartzen gaituela ikusten dugu.

— **Feministak zaretela esan nahi du horrek?**

— **1. zora:** Bai, noski; pertsonala dena politikoa da. Horregatik, gure ustez, «pribatu» deitzen den hori egituratu eta egonkortzen duten elementu orok, direla sozialak, ekonomikoak edo politikoak, borrokara bultzatu behar gaituzte emakumeok, horiek baitira hautsi nahi ditugun kateak. Baina ikusmolde murrizta edukiko genuke baldin eta hitz egingo bagenu gure ildo politikoaren gai bakarra Mendebaldeko Alemaniako emakumeon zapalkuntza balitz bezala, boterearen eta biolentziaren beste mekanismoetan erreparatu gabe: klase-esplotazioa, arrazakeria edo herrialdeen erabateko sarraskia inperialismoaren eskutik. Ikusmolde murrizta horrek ez du barne hartzen miseriaren mamia, hau da, emakumeon zapalkuntza eta sexuaren araberako lan-banaketa zapalkuntza ororen funtsa eta aurrebaldintza direla: beste arraza batzuen aurkako zapalkuntza, gutxiengoaren aurkakoa, zahar eta gaixoen aurkakoa eta, batez ere, matxino eta hezigaitzen aurkakoa.

— **2. zora:** Borroka feminista sistemaren barnean «eskubide-berdintasuna» eta errekonozimendua eskatzeko baliatzen denean, orduantxe hasten dira zailtasunak. Ez dugu nahi gaur egun gizonen eskuetan dauden postuak emakumeek betetzerik, eta arbuiatu egiten ditugu itxurazko «borroka feminista» baten atzean kukutuz egitura patriarkalaren barnean gora egin nahi duten emakumeak. Emakume pribilegiatu gutxi batzuek baino ezingo dute hartu horrelako biderik; egintza indibidualak dira, ez besterik. Gizarte honetan, gizonen interesen arabera jarduten duten emakumeei soilik ematen zaie boterea kudeatzeko aukera.





Rote Zora, *Frauen In Kampf*, 1985. Iturria: Internet Archive.

— **Emakumeen mugimendua nahiko indartsua zen 70eko hamarkadan, eta zenbait gauza legearen bidetik lortu zituen. Adibidez: abortu-legearen aurka borrokatu zen, familia barneko indarkeria publikoki salatu zuen, bortxaketa boterean eta indarkerian oinarritutako ekintza bat dela ikusarazi zion gizarteari eta kontraegitura autonomoak sortu zituen. Beraz, zergatik baieztatzen duzue borroka armatuaren beharra?**

— **1. zora:** Jakina, mugimendu feministak hainbat gauza lortu ditu, eta, nire ustez, hauxe da garrantzitsuena: gizartea emakumeon zapalkuntzaz jabetu da, ondo jabetu ere. Era berean, emakumeontzat jada gure zapalkuntza ez da kontu pertsonal bat, eta jada ez dugu uste horren erantzuleak gu garenik. Aitzitik, emakume askok elkar hartu dugu eta antolatu egin gara, elkarrekin borrokatzeak dakarren indarrak jabeturik. Garai hartan emakumeen mugimenduak antolatzen zuen guztia –emakumeen liburu-dendak, emakumeen etxeak, emakumeen aldizkariak, biltzarrak eta topaketak– errealitate politikoaren parte izan da denbora batez, eta ezinbesteko osagaia da gure borrokaren garapenerako.

— **2. zora:** Garaipen batzuk batez ere une hartako egoera sozialaren ondorioz etorri ziren, gizarteak nolabaiteko askatasunerako aukera ematen baitzien emakumeei. Bulegoetan eta tailerretan emakumeak behar zirela ohartu zirenean, haurtzaindegi gehiago ireki zituzten, noski. Baina horrek ez zuen eragin funtsezko aldaketarik emakumeon bizimoduan. Hori lortzeko, etenik gabeko mugimendu bat behar da, eta mugimendu horren helburuek ezin dute izan sistemarekin bateragarriak, mugimendu horren fakzio gogorra ezin da makurtu legearen esanetara, mugimendu horren amorruaren aldarrikapenak eta parlamentuz kanpoko eta instituzioen aurkako engaiamenduaren adierazpenak mugagabea izan behar du.

— **1. zora:** Legearen araberako borroka ez da nahikoa, ohiko zapalkuntza-moldeak eta indarkeriaegiturak legezkoak baitira. Gizon batek bere emaztea jo edo bortxatzen badu, legezkoa da. Trafikatzaile batek Hirugarren Munduko gure ahizpak erosi eta alemaniar gizon bati saltzen badizkio, legezkoa da. Emakumeek osasuna galdu behar badute eta lan monotonoak egin behar badituzte iraupeneko soldaten truke, legezkoa da. Horiek guztiak baldintza biolentoak dira; ez gaude prest horrelakoak jasaten jarraitzeko, eta salaketa hutsez ez ditugu desagerraraziko. Bere garaian oso garrantzitsua izan zen herritarrak emakumeon aurkako indarkeriaz kontzientziatzea, baina horrek ez zuen ekarri indarkeriaren prebentzioa. Bistakoa da ez zaiola batere kasurik egiten emakumeok jasaten dugun bidegabekeria nabariari, eta tolerantzia horrek agerian uzten du gizonezkoak bizkarroi hutsak direla. «Normaltasun» horrek zerikusi zuzena du gaur eguneko erresistentzia apalarekin. Izan ere, erresistentzia da zapalkuntza nabarmenarazten duena. Horregatik sabotatu, boikotatu eta hondatzen dugu eta erantzuleak erasotzen ditugu, jasandako indarkeria eta umiliazioez mendeku hartzeko.

— ***Nola baloratzen duzue gaur egungo mugimendu feminista?***

— **2. zora:** Gure ustez, ez da zuzena mugimendu feministaz hitz egitea. Alde batetik, emakumeen mugimendua aspalditik datozen egituren, askotariko proiektu eta elkarguneen eta mistizismoaren emaitzatzat jotzen da. Mugimenduaren barruko korrante ugari ez dute behar bezala elkar indartzen; are gehiago, bateraezinak dira, eta elkarren kontra borrokatzen dira. Bestalde, bulkada politiko berriak sortzen ari dira zenbait testuingurutan, zeinetan emakumeak beren zapalkuntzaz jabetzen ari baitira, egitura patriarkala errotik zalantzan jartzen eta emakumeen aldeko politika egiten. Hala gertatzen ari da, esate batera, Latinoamerikarekiko elkartasun-taldeetan, talde antiinperialistetan eta okupen mugimenduan. Horregatik, zuzena da esatea: «Borroka feminista hila da, gora borroka feminista!». Mugimendu feminista ez da borroka antinuklearraren edo etxe-okupatzaileen mugimenduaren gisakoa, zeinek ez baitute aurrera egingo baldin eta zentral nuklear gehiago eraikitzen ez badira edo espekulaziorako higiezin gehiago geratzen ez bada. Mugimendu feministak egitura patriarkal guztiei heltzen die, haien teknologiari, haien lan-antolamenduari, haiek naturarekin duten



harremanari. Hortaz, mugimendu feminista ez da desagertuko kimu gaizto batzuk erauziz, baizik eta iraultza sozialaren prozesu luze baten ondorioz.

— **1. zora:** Mugimendu feministak ez du inoiz behar bezala hausnartu jasan dituen porroten inguruan; esate batera, abortu-legearen aurkako borrokan pairatutako porrota edo diru publikoz hornitutako proiektuen –adibidez, indarkeria jasan duten emakumeentzako etxeak– inguruko finantzaketaren aferan izandakoa. Ez du estatuaren politika arbuiatzen. Gainera, familia-politikaren inflexio-puntua aurreratu zuen, emakumeen mugimenduaren barruan amatasun berri baten aldeko olatua sortu baitzen. Bestalde, klase-auzia beti baztertu izan da, zapalkuntza sexistaren unibertsalizazioak gizarte-desberdintasunak ukatzea ekarri baitzuen. Horren ondorioz, gaur egungo krisiaren testuinguruan zaila da lan-baldintza gero eta okerragoei, zapalkuntza gero eta handiagoari eta familia-politika gero eta atzerakoiagoi erantzun bat ematea. Ez dugu erasoari behar bezala erantzuteko ekintza-irizpiderik, eta horrek dilema baten aurrean jartzen gaitu: edo politika atzerakoien aurkako eraso jotzen dugu, edo emakumeen ekintzarako askatasunaren bilakaera babesten dugu. Teorian ezin dugu kontraesan hori ebatzi, baina ez dugu uste emakumeen batzordeak eratzea (Alderdi Berdean) irtenbide egokia denik. Eskarmentuak dioskunez, emakumeok ezin dugu boterea gureganatu berariaz emakumeak baztertzeko eta nagusitasun patriarkala egonkortu eta mantentzeko sortuak izan diren bideetatik. Horregatik, gure ustez, alderdi eta erakundeetan emakumeen kontseiluak eratzea ez da haietan eragin handiagoa eskuratzeko bide zuzena.

— **2. zora:** Beste alde batetik, orain badira eztabaida-ardatz eta analisi berri batzuk emakumeon artean, gizartearen etorkizuneko garapena lantzen dutenak. Esaterako, aztertzen ari gara nola areagotzen duten zapalkuntza teknologia berriek gizarte-mailarik behearen ikuspuntutik. Era berean, gero eta hobeto ulertzen dugu zer ondorio dituzten emakumeengan lana eta soldata antolatzeko molde berriek eta zeharkako biolentziaren egiturek. Emakume asko argi eta garbi jabetzen dira beren aurkako eguneroko gerraz, pornografia gogorraren olatuaz, propaganda misogino gero eta ohikoagoaz, baita amatasuna eta feminitatea areagotzeko eskakizunaz ere, eta arbuiatu egiten dute hori guztia. Halaber, ulertzen dute krisiak eta kapitalaren estrategia berriek horiexen beharra dutela: familiaren eta emakumeen inguruko politika atzerakoiak. Biztanleriaren garapen kualitatiboan eragin nahi dute, eta biztanleriaren politika –abortu-legearen aldaketa barne– horretarako tresna bat da. Horiakin eta estatuak finantzaturiko teknologia genetikoaren bidez, «erdimailako klaseko alemaniar osasuntsuen» kopurua areagotzen saiatzen dira. Mota horretako hautespena eragotzi behar dugu, zalantzarik gabe. Gaur egun, inoiz baino gehiago, mugimendu feminista erradikal bat behar dugu, zeinak eraso soziopolitikoari aurre egiteko indarra izango baitu, ez bakarrik emakumeon aurkakoei, baita ere etorkinen eta bestelako gutxiengoen kontrakoei ere. Emakumeon askapenerako mugimendu bat, iraultzarekiko itxaropena amets huts bihurtzen utziko ez duena.



Rote Zora, *Praktische Tips*, 1990. Iturria: Archiv Schwarzer-Stern.

— *Nola ikusten duzue zeuen burua: mugimendu feministaren partetzat, gerrillaren partetzat, edo biak aldi berean? Zuen ustez, zer lotura dago bien artean?*

— **1. zora:** Mugimendu feministaren parte gara, emakumeon askatasunaren aldeko borrokaren buru gara. Teorikoki batzen gaituenaz gain, bada beste lotura bat gure praktikaren eta mugimendu feminista legalaren artean; izan ere, emakume bat erradikalago bihurtzeak beste emakume batzuk ere beren burua defendatzera bultzatu ditzake, eta beren burua eta beren borroka gehiago baloratzera. Beldurtzen izan zaituen zerbait egiteko gai zarelaz ohartzean sentitzen duzun sendotasuna, zure ekintzen emaitzaz eta horren eraginaz jabetzen zarenean; sentipen hori zabaldu nahi dugu, eta ez dugu uste guk hautatuko bidea aukera bakarra denik. Esate batera, Berlinen emakume batzuek ikuskizun erotiko bat geldiarazi zuten; emakumeon borrokaren aldeko pintadak egin zituzten, eta kirats-bonbak jaurti. Horrelako ekintzek adorea eta indarra ematen digute, eta guk gure ekintzen bidez beste emakume batzuei zirrara bera eragitea espero dugu. Gure ametsa da emakume-talde txikiak egotea nonahi; baldin eta hiri bakoitzean bortxatzaile batek,

emakume-trafikatzaile batek, editore misogino batek, porno-trafikatzaile batek, ginekologo higuingarriek batek... jakingo balu horrelako talde batek kargu hartuko diola, haren eraso jasango duela, publikoki salatuko duela, barregarri utzi; esate batera, haren etxean jakinaraziz nor den eta zer egin duen, haren autoan idatziz, haren lantokian... Emakumeon indarra toki guztietan, horixe nahi dugu.

— **Zuen ekintzen bidez, arriskuan jar dezakezue kontu honekin zerikusirik ez duten pertsonen bizia. Nola daramazue erantzukizun hori?**

— **2. zora:** Zer dela eta pentsatzen du jendeak gai kimikoak edota lehergailuak maneiatzen dituenak pikutara bidaliko lukeela bai zuk, bai mugimendu feministak, bai ezkerak ziurtzat ematen duena? Alderantziz da! Ekintzarekin zerikusirik ez duten pertsonen bizia arriskuan jartzeko aukera horrek erantzukizun berezi bat izatera behartzen gaitu. Guk bezain ongi dakizu galdera horretan planteatzen duzuna zuzena balitz jai izango genukeela. Paradoxikoa litzateke giza bizia esplotazioaren ikuspuntutik baino ulertzen ez duen sistema baten aurkako borrokan haren zinismo eta basakeria beraz jardutea. Ekintza asko alde batera utzi ditugu, arriskutsuak izan zitezkeelako inguruko jendearentzat. Enpresa batzuek ondotxo dakite hori, eta, horregatik, beren egoitzak etxebizitza ugariko eraikuntzetan jartzen dituzte; jendea bizi den tokietara aldatu, eta gure moralarekin jokatzeko dute.

— **Zer deritzozue ondorengo argudioari: ekintza armatuek mugimendua kaltetzen dute. Zuen ustez, egia da ekintza armatuen ondorioz mugimendu feminista are gehiago kontrolatu eta zelatatzen dutela, terroristatzat jotzen dutela eta haren izena belzten, eta mugimenduko kideak emakumeen gehiengotik baztertu eta bakartu egiten dituztela?**

— **1. zora:** Mugimendua kaltetzea diozunean, errepresioaz ari zara, ezta? Baina alderantziz da. Ekintzek ez diote kalterik egiten mugimenduari, ekintzek babes zuzena eskaintzen diote mugimenduari. Adibidez, emakume-trafikatzaileen aurka egin ditugun erasoek herritarrak haien negozioaz ohartzeko balio izan dute, haiek mehatxatzeko; orain badakite negozioarekin aurrera eginez gero emakumeok aurrean izango gaituztela. Eta baldin eta jaun horiek ohartzen badira gure erresistentzia kontuan izan behar dutela, mugimendua indartu egin da.

— **2. zora:** Kontrainsurgenteak betidanik saiatu izan dira sektore erradikalak kostu ahala kostu mugimendutik bereizten, isolatzen, mugimendu osoa ahultzeko asmoz. 70eko hamarkadan argi ikusi dugu nora garamatzan ezkeraren zati batek Estatuaren propaganda bere egiteak, Estatuaren jazarpen, biolentzia eta errepresioaren aurrean amore eman gabe borrokatzen direnak erantzuletzat jotzeak. Kausa eta ondorioa nahasteaz gain, Estatuaren terrorismoa zuritzen dute zeharka. Eta, horrela, beren posizioa ahultzeko dute. Beren protestaren irismena murrizten dute, beren erresistentzia.

— **1. zora:** Gure esperientzia zera da: kontrolaezinak izaten eta Estatuaren erasoetatik babestuta egoten jarraitzeko, erakunde sendoa behar da. Ezin dugu

onartu talde txiki guztietan akats berberak errepikatzerik. Esperientzia eta ezagutzak trukatzeko egiturak eduki behar dira, mugimenduarentzat erabilgarri direnak.

— *Nola ulertu behar dituzte zuen eskakizunak era erradikal edo autonomoan antolatuta ez dauden emakumeek, kontuan izanda ekintza armatuek izua eragiten dutela?*

— **2. zora:** Zergatik ez du izurik eragiten gizon batek emakumeak erosi eta saltzeak, eta bai, aldiz, gizon horren autoari su emateak? Horren atzeko pentsamoldea hau da: gizarteak bidezkotzat hartzen duen biolentzia onartu egiten da, eta, aldiz, baztertu egiten da haren kontrako defentsa. Beharbada izua eragiten du ohikotzat jotzen dena zalantzan jartzeak, beharbada txikitatik biktimaren rolean heziak izan diren emakumeak ezeroso sentitzen dira beren burua ez biktimatzat ez bakezaletzat ez duten emakumeen aurrean. Ez da erronka makala. Ezintasuna amorruez bizi duten emakumeak, aldiz, identifikatu egiten dira gure ekintzekin. Emakume bakarraren aurkako ekintza biolento batek emakume guztion aurkako mehatxu-giro bat sortzen duen bezalaxe, gure ekintzek –nahiz eta soilik erantzuleen aurkakoak izan– beste giro bat sortzen laguntzen dute: erresistentzia posible da!

RZko emakumeak.

